

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Antso Gartzeiz

Jesus M.ª Arrieta

GERO
120 orrialde
11 euro


Nafarroaren hastapenak

Jesus M.ª Arrietak idatzitako *Antso Gartzeiz* liburuan kontatzen den istorioak historia liburuetatik eta Nafarroako erresuma sortu zen garaietatik bizirik dirauten elezaharretatik edan du. Hamabi urte baino gehiagoko irakurleei zuzendutako liburua da. 778. urte inguruan Orreagako gatazkan Eneko Haritza eta bere anaia Gartzia Semeneitz nagusi agertu eta gero, biak aukeratu ei zituzten nafarrek beren buruzagi izateko. Baina biak batera errege izatea arriskutsua zitekeela-eta, txandaka agintzekoak ziren: Eneko Haritza aurrena, bera hil eta gero, Gartzia. Biek izan zuten seme bana. Baina Gar-

tzia Semeneitz zaharturik sentitu eta erregetza gazteagoen eskuetan uztea erabaki zuenerako, Enekoren semea preso gozen, eta berea oraindik jaiotzen zen. ■

Zirkutik ihes egin zuen txinpantzea

Ibaizabal argitaletxeak kaleratu du Iñaki Zubeldiaren *Tximu bat klinikan* kontakizuna, Alai Zubimendiren marrazkiekin. Txinpantze batek klinika baten barruan bizitako ezusteak eta ikasitako gauzak azaltzen ditu. Kiki da txinpantze hori, bizitoki zuen Zirku Mundiala batean erre zenean erabat izutu eta ihesi joandako tximua. Hiriko kaleetan zehar nora jo ez zekiela zebilenean ikusi zituen klinikako atea irekirik, eta arrapaladan sartu zen. Baina barrukoak bera ikusi orduko, oihuka hasi ziren: “Eeee, tximu bat! Eziozue utzi aurrera joaten! Harrapa ezazue!”. Iskanbilatik ihesi, eskailera batetik gora egin zuen Kikik, tropel bat segika zuela. Bat batean gela batetik mutiko bat agertu zitzaion, besoak zabaldua. Haren besoetara salto egin, eta seguru sentitu zen tximua. ■



Tximu bat klinikan

Iñaki Zubeldia

IBAIZABAL
80 orrialde
8,46 euro



Pako fakirra eta Zokomokordo

Xabier eta Martin Etxeberria,
Jose Belmonte

ELKAR
56 orrialde / 7,25 euro

Pako fakirren bigarren abentura liburua

Zortzi urtetik aurrerako neska-mutikoei begira Xabier eta Martin Etxeberria anaiek idatzi eta Jose Belmontek marraztutako istorioa dugu *Pako fakirra eta Zokomokordo*. Beste edonoren ikuspegitik bere burua gogorki hilduratzen duen pertsona da Pako –burnizko tresnak jaten eta iltzezko ohean lo egiten ohituta baitago–, baina zer egingo zaio, horixe du berak gustuko. Bigarren abenturan, bere herrira itzultzen da, Pakistanera, familiari bisita egitera. Baina ez ditu, espero bezala, egoera onean aurkitzen, den-denak baitaude gaixo, kakalarriari eutsi ezinik, Zokomokordo deitutako batek herriko ura pozoitu dielako. Itxura beldurgarria du Zokomokordok, eta ipurditik jateko ohitura xelebrea. Baina Pako fakirrak aurre egitea erabakitzen du. ■

XXI. mendeko nazionalismoaz

Egun estatuen mendean dauden nazioetan beregaintasuna lortzeko zer nolako atxikimendua dagoen aztertu ohi du Soziologian doktore den Ricardo dela Encina y Pérez Onraitak. Ikerketa horren emaitza zen bere garaian Pamiela argitaletxeak argitaratutako *Poder y Comunidad. Una sociología del nacionalismo* liburua, eta baita oraintsu kaleratu duten *El fénix nacionalista. La vigencia del nacionalismo en el siglo XXI* ere. Aurrenekoan, zapalduko herrietan bere nazioarekiko atxikimendua nola sortu zen aztertu zuen. Bigarrenean, kontzientzia nazional hori XXI. mendean bizirik irautearen arrazoietan sakondu du. Adituak dio, askok uste dutenaren kontra, globalizazioarekin nazionalismoa ez dela lokartu, ez dela zaharkitu; alderantziz, berpiztu egin dela. Eta hori dela kontua: nazionalismoa bere errautsetatik berriz jaiotzen dela beti. ■



El fénix nacionalista

Ricardo de la Encina y Pérez Onraitak

PAMIELA
200 orrialde
17,50 euro



Eman izar bat

Miriam García
Pascual

DESNIVEL EDICIONES

70 orrialde

12 euro

Emakume eskalatzaile baten egutegia

Ruben Epelde Etxanizek egindako itzulpenari esker euskaraz plazaratu da Miriam García Pascualen *Eman izar bat*. 1963an Tafallan jaio-tako emakume honek, idazteko pasioaz gain, eskalatzea, bidaiatzea eta, oro har, *bizitzari zurrutada handiak ematea* zituen irrika, Juanjo San Sebastianek liburuaren hitzaurrean dioen bezala. 1986an Patonesen Espainiako estatuko eskalada txapelketa irabazi eta gero, Nose, Capitan Salathe, La Viseraren Directa bidea, Fire-ko Mediterraneo bidea, Eclipse Lunar eta beste hainbat gailur garai eskalatu zituen. 1988an 7 hilabeteko bidaia egin zuen Ameri-

ketara. Horixe da *Eman izar bat* honetan era poetikoan kontatzen duena. 1990an Merun (Indian) desagertu zen. **I**

Kolore anitzeko oilandek errundako arrautzak


Juan Kruz Igerabidek euskaratutako lana da *Hamar oilo gara*. Etxeko txikiak izan zituen Sylvia Dupuisek gogoan istorioa asmatzerakoan. Kolore anitzetako oiloak eta oilandak ditu protagonista. Arrautzak barra-barra ipintzen dihardute guztiek, baina bakoitzak bere arrautzak erruteko leku ezberdina aukeratu ohi du. Esate baterako, oilanda grisak eliza batean egiten du; oilanda beltzak, armairuko apa-lean; oilo txurixuri arinak, adar batean; oilo nabarrak, elurretan; oilo gorritak, sastrakan; eta oilanda marroiak ilargian. **I**

Hamar oilo gara

Sylvia Dupuis

IBAIZABAL

22 orrialde / 7 euro



JOXE IRIARTE BIKILA

«Mohamedek esan zidan sirokoa hassanieraz riag entinak dela»

Liburuaren izenburua metafora bat al da?

Bai. Saharar herria era askotako sirokoen mende bizi dela salatu nahi nuen: Marokoaren aldetik, errepresioa eta ukazioa du; NBEren aldetik, zurikeria eta utzikeria, eta Europaren aldetik joko bikoitza, espainiarrena barne. Baina basamortuaren basamortua den *hamadaxen* gogortasuna ere adierazi nahi nuen. Eta gure elkartasunaren aldarria egin.

Azaleko zuhaixkak zer esan nahi du?

Basamortuko akazia da. Enborra bihurria eta azala lakarra ditu, bost adar oker zabalerantz eta gora egiten. Puntetan adaska sorta, non hosto iharrak zirtzilka. Nola iraun lezake bizirik? Harrigarria da natura. Guretzat guztiz antzua den basamortuan, horrelakoek adierazten dute bizitzak mila aurpegi dituela, denak desberdinak. Miraria dela saharar herriarena, bertan bizi ahal izatea, alegia.

Sirokoak maratoia gogorago bihurtuko zuen?

Jakina! Hondar-jasak kolpatzen zidan aurpegiaren, besoetan, izterretan, gorputz osoan. Nekatua, mindua eta erdi itsutua nengoen. Egoera horretan, betizuarena egin behar: burua makurtu, eta kosta ahala kosta, aurrera egin. Helmuga zeharkatuta, berriz, euforiak bizi ninduen. Atzean geratu ziren dudamudak, nekeak eta ixurritako izerdi guztia.

Saharak harrapatzen al zaitu?

Dudarik ez. Etxera itzuli eta egun batzuen bueltan, ikusitakoarekin eta bizi izandakoaz hausnarrean hasitakoan, jakiten da jadanik ez zarela lehengo bera. Hangoak hemengo direla, eta hangoa ere badela norbera. Sahara bizi dela. Harrapatuta dagoela. Eta ez edonola, gainera.




ALBERTO ELOSTEGI

Saharar herriaren burujabetzaren aldeko maratoiak

Sahararen aldeko Oartzungo El Watan Elkarteak plazaratu du Joxe Iriarte *Bikilaren*

Riag entinak (Elkartasuna basamortuan) liburua, Gakoa liburuak, Mikelazulo Kultur Elkartea eta Oartzungo Udalaren laguntzaz. Elkartasunaren aldarria da liburua, eta haren salmentatik jasotako dirua elkartasun hori gauzatzera zuzenduko dute. Basamortuko harearekin pazientziaren hareazko erlojua betetzen jakin duen saharar herriari elkartasuna adierazi nahi dio lan honek. Ia mende oso batean Espainiaren zapalkuntza koloniala jasan ondoren, Nazio Batuek 1961ean kolonia guztiei onartutako autodeterminazio eskubidea ukatu eta Maroko eta Mauritaniaren mende nola uzten zuten ikusirik, borroka armatuari ekin behar izan zioten sahararrek. Eta oraindik Marokoren hatzaparretatik at dirau-

Riag entinak
(Elkartasuna
basamortuan)

Joxe Iriarte Bikila

EL WATAN

108 orrialde

8 euro

egileari galdezka

tenak, Tindufeko kanpamentuetan daude, aberriera noiz itzuliko zain. Helburuaren atzetik egindako ahalegin andanaren artean, AEBko Western Sahara Foundationek eta Saharako Emakumeen Batasun Nazionalak antolatutako maratoiak daude. Haietan parte hartu zuen *Bikilak*, eta esperientzia horietan bizi izandako eta egindako ezagutzak kontatzen ditu liburuan. **■**